

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Lehen adierazi dugun bezala, gure web orrialdean egin dezakezu eskaera edo ibilgailu denda eta taileretan dago salgai Smart Helmet-a. Horretaz gain, web orrialdean informazioa ere eska dezakezu eta bezeroen arretarako telefono zenbakia ere jartzen du bertan, edozein arazo izango bazenu bertan langileekin kontaktuak jartzeko. Oraingoz, ez dugu asmorik Amazon edo horrelako online denda handietan saltzeko, ez dugulako beraiengan dependentzia eduki nahi. Baina etorkizun batean, Amazonekin kolaboratuko dugu oso eroso delako erosleentzat eta gaur egungo jendeak, konfiantza handia dauka horrelako aplikazioetan.

Ibilgailu dendetan ere aurki dezakegu, motoak edo motoentzako osagarriak saltzen diren atalean aurki genuke Smart Helmet-a. Gainera, kartel handiak jarriko ditugu erosleek, dendara sartzean, hauek argi eta garbi ikusteko eta horrela beraien interesa piztuko da. Horretaz gain, bluetooth-a teknologia berria denez eta gaur egungo jendeak berrikuntzak bilatzen dituzenez, oso erakargarria egingo zaie gure produktua.



Azkenik, taileretan ere aurki dezakegu, hemen ibilgailuen osagarriak ere saltzen direlako. Gehienek kasko zaharkituak dauzkate eta gurea bertan saltzeak, bezero berriak erakarriko zizkiolako.

Beraz, kaskoa nahi bazenu, gurekin harremanetan jartzeko modurik errazena, web orrialdea da, bertan gure enpresaren informazio dago eskuragarri.